15

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Pertsonen Kudeaketa
Gestión de Personas
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

**TOKIKO GOBERNU BATZARRARI**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020/02/25ean, Herri Babeseko Erdi Mailako Teknikari lanpostuko (344 zk.) hutsik dagoen dotazio bat behin betiko betetzeko lehiaketa berezia egitea erabaki zuen. Deialdia eta oinarri partikularrak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2020/03/03an, 42. zk.

Hautaketa-prozesua amaituta, Gobernantzako zinegotzi ordezkariak, 2020/12/21eko ebazpenaren bidez, lanpostu hori hutsik uztea erabaki zuen.

Aurrekoa ikusita, Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritzak jakinarazi du beharrezkoa dela Herri Babeseko Erdi Mailako Teknikari lanpostura (344. zk.) sartzeko betekizunak aldatzea, eta lanpostua betetzeko deialdi berri bat egin baino lehen, beste euskal administrazio publikoetako funtzionarioentzat ere irekitzea.

Langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021/03/02an, lanpostuen zerrenda aldatzea onartu du; zehazki, Herri Babeseko Erdi Mailako Teknikari lanpostua (344 zk) betetzeko baldintzak aldatu dira, eta aurrerantzean, lanpostua Udaleko eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuetako karrerako funtzionarioentzat gordeko da.

Beraz, lanpostu hori behin betiko betetzeko beste deialdi bat onartu behar da, lanpostuen zerrendaren aldaketak dakartzan eskakizun berriekin bat datorrena.

Deialdiko lanpostuaren izaera kontutan izanda, hura lehiaketa bereziaren bidez beteko da, sistema hori baita lanpostua betetzeko egokiena 2004ko urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren (Euskadiko Herri Administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duenak) 5. artikuluaren arabera.

Honela, Hautaketa Zerbitzuak lanpostua betetzearren prozesua arautuko duten oinarri partikularrak prestatu dira. Lan horretan, honako arau hauek bete dira: Urriaren 30ko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena, Euskal Funtzio Publikoaren Legea eta arestian aipatutako Dekretua.

**A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL**

La Junta de Gobierno Local, con fecha 25/02/2020, acordó convocar concurso específico para la provisión definitiva de una dotación vacante del puesto de trabajo n.º 344 Técnico/a Medio/a de Protección Civil. La convocatoria y las bases particulares fueron publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 03/03/2020, núm. 42.

Finalizado el proceso selectivo, el Concejal delegado de Gobernanza mediante resolución de fecha 21/12/2020 acordó dejar desierto dicho puesto.

A la vista de lo anterior, la Dirección de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamentos informó de la necesidad de modificar los requisitos de acceso al puesto n.º 344 Técnico/a Medio/a de Protección Civil, abriéndolo a funcionarios/as de otras administraciones públicas vascas, antes de proceder de nuevo a su convocatoria.

Previa negociación con la representación del personal, la Junta de Gobierno Local ha aprobado el 02/03/2021 la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo; en concreto, se han modificado los requisitos de acceso del puesto n.º 344 Técnico/a Medio/a de Protección Civil, reservándolo en adelante a funcionarios/as de carrera del Ayuntamiento y de otras Administraciones de la Comunidad Autónoma Vasca.

Por tanto, procede aprobar una nueva convocatoria para la provisión definitiva del citado puesto de trabajo, acorde con las nuevas exigencias derivadas de la modificación de la relación de puestos de trabajo.

En atención a la naturaleza del puesto objeto de la convocatoria, este se proveerá mediante concurso específico, por ser el sistema de provisión más adecuado para su cobertura de conformidad con el artículo 5 del Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas.

Así, desde el Servicio de Selección se han redactado las bases particulares que regirán el correspondiente proceso, conforme a las disposiciones del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, de la Ley de la Función Pública Vasca y del Decreto anteriormente citado.

10740n XVII

Oinarri partikularrak, esparru oinarrietan ezarritakoa osatzen dutenak (2017/03/29ko GAO, 62. zk.), langileen ordezkariekin negoziatu dira eta halaxe jasota dago administrazio espedientean.

Las bases particulares, que completan lo establecido en las bases marco (BOG 29/03/2017, núm. 62), han sido negociadas con la representación de los/as trabajadores/as, de lo cual queda constancia en el expediente administrativo

Horregatik guztiarengatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako erabaki hartzea proposatzen diogu:

Por cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes acuerdos

## ERABAKIAK

**LEHENENGOA.-** 0344 lanpostua, Herri Babeseko Erdi Mailako Teknikaria, lehiaketa bereziaren bidez behin betiko betetzeko deialdia egitea.

**BIGARRENA.-** Aipatutako deialdia arautuko duten oinarri partikularrak onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Deialdia eta oinarriak dagokien hedabide ofizialetan argitaratzea.

## ACUERDOS

**PRIMERO.-** Realizar la convocatoria para la provisión definitiva mediante concurso específico del puesto de trabajo 0344 Técnico/a Medio/a de Protección Civil.

**SEGUNDO.-** Aprobar las bases particulares que regirán la citada convocatoria.

**TERCERO.-** Publicar la convocatoria y las bases en los medios oficiales que correspondan.

Donostian, 2021eko apirilaren 12an

HAUTAKETA ZERBITZUAREN BURUA

Sin.: Alfonso Jiménez Grandes

PERTSONAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Sin.: Maribel Íñiguez Azurmendi

GOBERNANTZAKO ZINEGOTZI ESKUORDEDUNA

Sin.: Juan Ramón Viles Mitxelena

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Lege Zuzendaritza - Dirección Jurídica

Tokiko Gobernu Batzarrak onartua.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local.

2021 API. ABR. 20

Batzordeko idazkaria,
El/La secretario/a de la Junta,



Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Alfonso Jimenez Grandes (12/04/2021 14:53 CEST), Maribel Iñiguez (12/04/2021 14:59 CEST)
Juan Ramón Viles Mitxelena (13/04/2021 10:02 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 2bbf34ca-15cb-46c9-b735-cfdcddff72c5